

5/2001 FORU LEGEA, martxoaren 9koa, Garapenaren aldeko lankidetzari buruzkoa.

NAFARROAKO GOBERNUKO LEHENDAKARI NAIZEN HONEK

Adtzera ematen dut Nafarroako Parlamentuak honako hau onetsi duela:

GARAPENAREN ALDEKO LANKIDETZARI BURUZKO FORU LEGEA

ZIOEN AZALPENA

Txirotasuna, demografia eta migrazio arloetako presioak, ingurumenaren hondatzea, etnien artean ugaltzen doazen gatazkak, izurriteen hedapena, arma nuklearrak ugaltzea, baita nazioetako mugak gainditzen dituzten bestelako arazoak ere, mundu mailan globalizatzen ari dira, gero eta gehiago; globalizazio prozesu horrek nazioarteko erkidegoaren kide guztien arteko lankidetzari eskatzen du, lortu ahal izateko irtenbide eraginkorrak eta guztiontzat zuzenak. Bestalde, herrialde industrializatuen arteko aldeak, garapen ekonomiko eta sozialen mailan, handitu egin dira azken urte hauetan, kasu gehienetan. Azpigarapenaren kontrako lanean bide eta modu eraginkor bati heltzea arazo larri honi aurre egiteko konponbideen saioak askotan mugatzen eta baldintzatzen dituzten elkarloturak onartzea da. Azpigarapena desegiteak gaur egun dakar pentsatzea haren ondorioak hondamendizkoak izan ahal direla gizateriarentzat.

Gertaera horiei erantzun beharrez, Nazioarteak aspaldi baditu abiatu garapenaren aldeko nazioarteko lankidetzari bultzatzeko politikak eta planak, bi osagaien inguruan eratuak: batetik, herri horiei finantza baliabideak helaraztea, garapenerako laguntza ofizial gisa Nazio Produktu Gordinareneko 0,7ko kuota emanez, desiratzekoa den kuota, alegia; eta bestetik, giza garapena bultzatzea (pertsonek gizarte jakin batean dituzten aukera eta paradak berretzeko prozesua: bizialdi luze osasuntsua izatea, norbere burua ezagupenez janztea, bizi maila itxurazkoa izateko baliabideak erdiestea, libertate politiko, ekonomiko eta sozialak bere esku izatea, sortzaile eta emankor izateko aukera izatea, norbere buruaren errespetua eta giza eskubide bermatuak izatekoa). Horrekin guztiarekin, eurt eragin nahi zaio pobreak bazterreratzeko joerari, eta giza garapeneko helburu errealisten bidean aurrera egin, besteak beste honelako programak abiatuz: elikagaiak bermatzeko programak, oinarrizko hezkuntza, osasun edo etxebizitza zerbitzuak erdiestekoak eta kreditua edo teknologia bezalako produkzio baliabideak lortzekoak, instituzioak sendotzeko eta parte-hartze politikorako programak, gizon- emakumeen arteko berdintasuna iristeko programak edo ingurugiroa lehengoratzeko programak.

Ilido horretatik, Europako Batasuna Eratzeko Itunaren XVII. tituluak (Garapenaren aldeko Lankidetzari), helburutzat finkatzen du garapen bideko herrialdeen garapen ekonomiko eta sozial iraunkorra, bereziki behartsuenena; munduko ekonomian pixkanaka eta orekatuki integratzea: herri horietan pobrezia borroka egitea; eta demokrazia sendotzea. Bestalde, Nazioarteko Lankidetzari buruzko uztailaren 7ko 23/1998 Legearen Zioen Azalpenak adierazten duen bezala, "Garapenaren aldeko lankidetzari gaitan Espainiak duen politikak 1978ko Konstituzioaren hitzaurreko deklarazioa du oinarri, zeinean Espainiako nazioak aditzera ematen baitu asmoa duela Lurreko herri guztien arteko harreman bakezkoak eta lankidetzazkoak sendotzen laguntzeko. Politika hori, hain zuzen, funtsezko osagaia da estatu demokratikoei garapen maila berera iritsi gabeko herriekiko izaten

duten kanpo ekintzan, zeinak nazioarteko gizartearen eta bertan gertatzen diren harremanen ikuskera elkarkoi eta solidario batean oin hartzen baitu."

Espainiako lankidetzari dagokionez, guztiz aipagarria da zein bilakaera azkarra izan duen lankidetzaren deszentralizatua deritzanak, bai autonomia erkidegoak eta toki entitateak bai gizarte zibila bertan inplikatu direlako, gizartean ere nazioarteko lankidetzaren eta elkartasunaren aldeko sentimenduak gero eta hedatzenago baitira. Gauzak horrela, Nafarroako lankidetzak toki gailena hartu du: 1998an garapen deszentralizatu guztiaren ehuneko 11 Nafarroatik heldu zen eta Nafarroa autonomia erkidegoen buru zen per capitako garapenaren aldeko laguntza ofizialean. Nafarroak bere lankidetzaren aldeko programaren bitartez nazioartean lortu duen presentzia ukalezina da, eta halaxe ageri da Nafarroako Gobernuak programa hori abiatu zenetik finantzatu dituen mila inguru proiektuetan: Afrikako 35 herrialdeetan, Hego Amerikako 20tan, Europako 7tan eta Asiako 7tan.

Lankidetzaren deszentralizatua delakoak, halakoa baita Nafarroatik hotsemandakoa, bost osagai bereizgarri ditu estatuen lankidetzaren sistema alde biko eta alde anitzekoan aldean: garapenaren aldeko aktore eta eragile guztien parte hartze aktiboa, gizarte politika horien hartzaileak berak aurrea direla; aktore desberdinen arteko abenikoa eta osagarritasuna bilatu nahia; kudeaketa deszentralizatua, subsidiarotasunaren printzipioan oinarritua; Prozesu gisako hurbilbidea nahiago izatea ohiko proiektu gisakoa baino; eta gaitasun sendotzeari eta instituzio garatzeari lehentasuna ematea. Osagai horiek guztiek hartu dute nolabaiteko lekua Nafarroako lankidetzan, zeinaren ibilera instituzionala laurogeiko hamarkadako erdi aldera hasi baitzen, orduan abiatu zirelarik Nafarroako diru publikoaz finantzatutako lehenbiziko proiektuak garapenaren alde.

Garapenaren aldeko lankidetzaz denaz bezainbatean, beharrezkoa da proposamen berriak luzatzea merkataritza, ekonomia, finantza-merkatuen araupetze eta politika sozialen eta aberastasuna birbanatzekoan abiarazteari dagokienez, garabideko herrialdeetan taxutzen ari diren gizarteetako hazkuntza-prozesuari begira.

Halaber, euren garapenean bertan protagonismoa duten populazioek parte har dezaten eta horiek programei atxiki dakizkien lortzea lehentasunezkoa izanen da, eta helburu eraldatzaileak ezarriko dira, laguntzaren xede diren herrialdeetan demokrazia gehiago indartzeko eta garapen instituzionala bizkortzeko.

Uztailaren 7ko 23/1998 Legeak, Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzari buruzkoak, oinarri komun batzuk finkaturik ere, autonomia erkidegoak eta toki entitateak ezartzen ditu lankidetzaren lanaren hasburutzat, aurrekontu autonomia eta garapen-burutzapenetako erantzukizunaren printzipioak gidari. Halaber, hainbat alderdi arautzen ditu, hala nola garapenaren aldeko gobernu kanpoko erakundearen araubide fiskala edo boluntarioen lana, gai horietako eskumenak bere baitu Nafarroako Foru Komunitateak.

Gaur egun, Nafarroako lankidetzari buruzko arau eta erregelamenduak barreiatu daude hainbat lege testutan, hala nola Dirulaguntzei buruzko Foru Legea, Boluntarioen lanari buruzko Foru Legea, Fundazioen tributu araubideari buruzko Foru Legea, Garapenaren aldeko Gobernu kanpoko erakundearen tributu araubidea arautzen duen Foru Legea, 95/1992 Foru Dekretua, zer dirulaguntza-araubide izanen den garapenaren aldeko lankidetzaren gaitasun ezartzen duena, edo 222/1996 Foru Dekretua, zeinak Nafarroako Garapenaren aldeko Kontseilua sortzen baitu.

Hori guztia gogoan, bada, beharrezkoa da arau bakarra izatea lankidetzaren printzipio, eragile eta baliabideen osotasunari egitura eta batasuna emateko, eta horixe da foru lege honen helburu oinarritzkoa.

Foru lege honen lehenbiziko kapituluak, legearen printzipioak, helburuak eta aplikazio eremua ageri dira, zeinek Nafarroaren lankidetzaren arestian aipatu lankidetzaren deszentralizatuaren ereduak sailkatzen duen. Aipagarriak dira parte-hartze sozialaren printzipioa, bai Nafarroan eta bai lankidetzaren helburu diren herri eta eskualdeetan; herriek beren garapena finkatzeko duten eskubidea errespetatzeko printzipioa eta Nafarroak herri horiekin dituen politika eta ekintza guztiekin koherentzia gorde behar duen printzipioa; helburu nagusia pobrezia, gertaera multidimentsionala den partez, aurre egitea da, giza garapen jasagarria bultzatzeko joeraren barrenean. Xedapen orokor horien osagarri, II. kapituluaren edukia heldu da, lehentasun geografiko eta sektorialen gainekoa, zeinaren ezaugarri nagusia baita plangintza estrategiko baten oinarriak ezartzea. Plangintza hori, ondoren. V. kapituluaren artikuluetan ezartzen diren plan eta programen bidez gauzatu da.

Ondoren, III. kapituluak instituzioen gaiari ekin eta finkatzen du zer eginkizun dituzten gai honetan Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak eta toki entitateak, eta bai Nafarroako Garapenaren aldeko Kontseiluak ere, zeina baita gai honetarako Nafarroako Gobernuak duen kontsulta- aholku organoa eta zeinaren bidez gauzatu baita parte hartze sozialaren printzipioa.

IV. kapituluak ekintza eremuak finkatzen ditu (garapenaren aldeko lankidetzaren programa eta proiektuak adiera hertsian, larrialdietako laguntza humanitaria eta Nafarroako gizartea gai honi buruz sentikortzeko eta eskolatzeko kanpainak). Administrazio publikoek ekintza horiek gauzatzeko zer baliabide izanen dituzten finkatzen du. Halaber, kapitulu honetan aipagarriak dira efizientzia, kontrol eta plangintza printzipioak.

Gobernuz kanpoko lankidetzaren eremuan jarduteko baldintzak, Nafarroako lankidetzaren ardatza baita, V. kapituluak arautzen ditu. Kapitulu honetan lankidetzaren eragileak zein diren ezartzen da, GKEen erregistroa sortzen da -horren bidez eskuratu ahal izanen dituzte funts publikoak-, eta horien araubide fiskala ezartzen da, fundazioenarekin parekatzen baita. Kapitulu honek, gainera, hainbat baldintza baditu: GGKEez eta administrazio publikoek beste eragile sozialak garapenaren aldeko lankidetzaren ekintzetan inplikatzeko bermeak.

VI. kapituluak eta xedapen gehigarriak Nafarroako lankidetzarako giza baliabideen inguruko arauak finkatzen dituzte. Bereizi egiten dira administrazio publikoen zerbitzuko langileen egoera administratibo edo laboral desberdinak, batetik, eta beste entitate batzuen giza baliabideak, bestetik. Kasu horretan, langile kontratatuak (23/1998 Legeko 38.2 artikulua aipatzen duen Kooperanteen Estatutua izanen baitute araubide) eta boluntarioak bereizi behar dira. Azken kasu horretan, eta beren lana zuzenean egiten dutelarik garabideko herrirentzako lankidetzaren proiektuetan, Nafarroatik bidali dituen erakundeak hainbat eskubide bermatu behar dizkie, kapitulu honetako artikuluetan xehetzen direnak. Eta azkenik, foru legearen bukarri, azken kapituluak heldu da, ekintza sozialaren arlo honi, Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzari, aplikatzeko zaizkion arau-hauste eta zehapenak jasotzen baititu.

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. Helburua.

Foru lege honen helburua da Nafarroako Foru Komunitateak beste herrialde batzuekin lankidetzan aritzeko erantzukizuna bere gain hartuz burutzen dituen ekintzak arautzea. Lankidetzaren helburua da, herrialde horietako biztanleen bizi-baldintzak hobetzen laguntzea eta probetasun egoerak xamurtu eta zuzentzea, betiere, giza-garapen solidario eta egonkorrari bidea emanez, askatasun kuota handiagoak eta garapen ekonomikoaren emaitzen banaketa bidezkoagoa barneratuz.

2. artikulua. Lankidetzaren helburuak

Foru lege honek araututako lankidetzaren oinarritzko helburua da herrialde pobretuenen garapena laguntzea, eta bereziki:

- a) Garapen bideko herrialdeak laguntzea ingurumenarekiko begirunea duen garapen iraunkor eta jasangarria erdiets dezaten, parte hartzekoa eta giza eskubideekiko begirunea gordetzen duen marko demokratiko batean, betiere, ukitutako herrien parte-hartzearekin beren garapen prozesu propioan.
- b) Nazioarteko erkidegoko harreman komertzial, politiko eta estrategikoetan oreka handiagoa lortzen laguntzea, nazioarteko justizia eta bakea sustatuz.
- c) Herritarren parte-hartzea sustatzea garapenerako lankidetzaren ekintzetan, garapen bideko herrialdeetako herriekiko konpromiso sozial handiagoaren alde gizartean sortzen diren ekimenak babestuz.
- d) Garapen bideko herrialdeen giza-baliabideak sendotzea, haien ekoizpen egiturak eta erakunde publikoak indartzea, eskualdeko integrazio-prozesuak babestea eta beregaina den garapena faboratzea.
- e) Garapen bideko herrialdeetan gertatzen diren larrialdi egoerei aurre egiten laguntzea, laguntza humanitarioaren bidez.

3. artikulua. Printzipio gidariak.

Nafarroako Foru Komunitateak bultzatzen duen garapenaren aldeko lankidetzak, historian zehar eta azpiegitura aldetik pobretutako herriengana Nafarroako gizarteak duen elkartasunaren agerkaria baita, honako printzipioak izanen ditu gidari:

- a) Herrien subiranotasun osoa errespetatzea.
- b) Ekintzak planifikatu eta gauzatzeko, haien eragina hartuko duten herriekin adostutako helburuak begiratuko dira.
- c) Lankidetzaren jomuga izanen da pertsona eta familien premia oinarritzkoak asetzea, eta orotara txertatuko da bai ekintza sozialetan, kulturaletan, ekonomikoetan eta teknikoetan, botere publikoek bultzatuak nahiz erakunde pribatuek abiatuak izan.

d) Foru Komunitateko administrazioak bultzatuko du gizarte zibilaren sektore esanguratsuek parte har dezaten garapenaren aldeko lankidetzak mamitzen eta gauzatzen.

e) Garapenaren aldeko lankidetzak bultzatu egiten ditu behar diren baldintzak herri guztietan pertsonen arteko berdintasuna benetakoa eta eragingarria izan dadin, eta aldi berean errespetatu egiten ditu herri bakoitzaren ezaugarriak, norbanakoak beren erkidegoan osoki integraturik egon daitezen.

f) Garapenaren aldeko lankidetzak bere gain hartuko du demokraziaren aldeko konpromisoa eta lagun egiten die herri pobretuei erabide politiko parte-hartzaile batean gara daitezen, giza eskubide eta libertate guztien erabilera oinarri.

g) Garapenaren aldeko lankidetzak ekintza guztiak ez dira izanen lankidetzaren helburu diren herrien ahaleginen osagarri eta lagunbide besterik, garapen jasagarria eta norberak jasateko modukoa lortzeko.

h) Garapenaren aldeko lankidetzak gaitan eskumena duten Nafarroako administrazio publiko guztiek lagun egiten dute oro har eskura dituzten baliabide publikoak ahalik eta hobekienik aprobetxatzen. Foru Komunitateko administrazioak bere eskumeneko jarduketak eremuetan aplikatzen dituen politikak, baldin eta garapenaren aldeko lankidetzak ukitzen ahal badute, koherentzia printzipioari jarraituko zaizkio.

i) Garapenaren aldeko lankidetzako ekintzak doakotasunaren printzipioak gidatuko ditu, eta hartara, garapenaren aldeko lankidetzak ez da bideratuko, ez zuzenean ez eta zeharka ere, Nafarroako erakunde, organizazio eta enpresen aldetik kontraprestazio ekonomikoa jasotzera.

j) Koherentzia printzipioa errespetatu behar da; horrela, Nafarroan garatzen diren politika orokor eta sektorial guztiak bat etorriko dira garapenaren aldeko printzipio eta helburuekin.

II. KAPITULUA

Lehentasun geografiko eta sektorialak

4. artikulua. Garapenaren aldeko lankidetzaren lehentasunak. Garapenaren aldeko Nafarroako lankidetzak bi lehentasun izan behar ditu antolagarri, foru lege honetako 17 eta 18. artikuluetan aipatzen diren plan eta programetan ageri den moduan:

a) Lehentasun geografikoa: Nafarroako lankidetzaren helburu lehenbizi izanen diren herrialde eta eremuak definitzea.

b) Lehentasun sektoriala: lankidetzak garatuko den ekintza-eremuek ezarria.

5. artikulua. Lehentasun geografikoa.

Nafarroako lankidetzaren ikuskerak mundu osoa hartzen du helburu, baina pobrezia indize altuenak dituzten herri- eskualdeei emanen die lehentasuna.

6. artikulua. Lehentasun sektorialak.

Foru Komunitatetik eratzen den lankidetzak honako ekintza eremuetara joko du nagusiki:

- a) Oinarrizko giza garapenari dagozkion programa eta proiektuak: elikagaiak bermatzekoak, oinarrizko hezkuntza eta giza baliabideak gertutzekoak, birziklapena, toki- profesionalen prestakuntza eta espezializazioa, osasun laguntza, ura hornitu eta edateko ontzeko programak eta bestelakoak.
- b) Pobrezia gutxitzeko, enplegu emankorra izateko aukerak gehitzeko eta soberakinak sortzeko estrategiak.
- c) Haurren eta beste sektore bereziki zaugarrien aldeko ekintzak.
- d) Indigena talde autoktonoen garapena faboratzeko programa eta proiektuak.
- e) Giza eskubideak sustatzeko, garapen bideko herrialdeetan sistema demokratikoak sortu eta indartzeko, instituzio deszentralizatuak laguntzeko eta gizarte zibila sendotzeko ekintzak.

Beti ere, lehentasuna emanen zaie garapenean jeneroaren egoera eta gizon eta emakumeen arteko berdintasuna aintzat hartzen dituzten ekintzei. Bereziki baloratuko dira emakumeek beraiek edo haien erakundeek abiarazitako proiektuak, beren oinarrizko beharrak eta behar estrategikoak asetzekoak. Azken helburua izanen da emakumeen botere jabetzea delakoa faboratzea.

Halaber, kasu guztietan lehentasuna emanen zaie ingurumena eta baliabide naturalen zainketa eta erabilera jasagarria aintzat hartzen dituzten ekintzei.

7. artikulua. Gizarte sentsibilizazio eta garapenerako hezkuntza.

1.-Gizarte sentsibilizazio eta garapenerako hezkuntzatzat jotzen da gizarteak garapen bideko herrialdeen arazoak hobeki hautemateko eta solidaritatea eta haiekiko lankidetzak aktiboa bizkortzeko jardueren multzoa. Horretarako bideak izanen dira: zabalkunde kanpainak, informazio zerbitzuak, prestakuntza programak, garapen bideko herrialdeetatik datozen produktuekiko bidezko merkataritzaren eta kontsumo arduratsuen aldeko ekimenak laguntzea.

2.-Nafarroako administrazio publikoek garapenaren aldeko lankidetzarako egiten dituzten programetan sartuko dute gizarte sentsibilizazio eta garapenerako hezkuntza ekintzak egitea, zuzenean edo garapenaren aldeko gobernu kanpoko erakundeekin lankidetzan.

III. KAPITULUA

Esparru instituzionala

8. artikulua. Nafarroako Gobernuak.

Nafarroako Gobernuak lau urtetik behin finkatuko du zer lerro eta jarraibide nagusi izanen dituen bere garapenaren aldeko lankidetzak politikak eta nola mamituko diren lege honek politika horretarako finkatzen dituen helburu eta lehentasunak. Hori guztia, foru lege honetako 17. artikulua finkatzen duen moduan.

Departamentu eskudunak, Nafarroako Gobernuaren jarraibideekin bat, lankidetzak politika hori programatu eta gauzatuko du, Nafarroako Garapenaren aldeko Kontseilua lagun duela, foru lege honetako 10-12 artikuluek xedatzen duten moduan.

9. artikulua. Nafarroako toki entitateak.

Nafarroako toki entitateek zilegi izanzen dute, beren eskumenak erabiliz, bidezko iruditzen zaizkien garapenaren aldeko lankidetzak ekintzak egitea, foru lege honetako I eta II. kapitulu-tako printzipio gidariak, lehentasunak eta helburuak begiratu. Garapen bidezko herrialdeen udal- sistema sendotzen ginen dute eginahala, aukeran.

10. artikulua. Nafarroako Garapenaren aldeko Kontseilua.

Garapenaren aldeko lankidetzak-eragileak koordinatu eta parte hartzeko premiaren erakusgarri, Nafarroako Garapenaren aldeko Kontseilu bati ematen zaio arau, Foru Komunitateko administrazioaren kontsulta organo kolegiatu gisa. Erregelamenduak emanen dizkion antolamendua, funtzionamendua eta eskumenak izanzen ditu.

11. artikulua. Kontseiluan ordezkariak izanzen dituzten entitate eta organoak.

Kontseiluak departamentu eskudunaren kontseilaria izanzen du buru eta honakoek izanzen dute eskubidea bertan ordezkari izateko: Nafarroako Foru Komunitateko administrazioa, Nafarroako Parlamentuko taldeak (Foru Parlamentuko kide ez diren ordezkarien bidez beti ere), Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa, Nafarroan dauden unibertsitateak, ordezkari handiena duten Foru Komunitateko sindikatuak eta enpresa elkarteak eta Nafarroako garapenaren aldeko lankidetzako gobernu kanpoko erakundeak. Nafarroako garapenerako gobernu kanpoko erakunde kasuan, haien ordezkari Nafarroako GKEen Koordinakundearen baitan hautatuko da.

Kontseiluak zilegi izanzen du garapenaren aldeko lankidetzan adituei gonbit egitea aholku eman diezaioten.

12. artikulua. Kontseiluaren eginkizun oinarrikoak.

Kontseiluak honako eginkizunak izanzen ditu:

a) Nafarroako administrazio publikoei aholku eta laguntza ematea garapenaren aldeko nazioarteko lankidetzaren gaitan.

b) Garapenaren aldeko lankidetzak plan eta programen gaineko txostenak egitea, Nafarroako Gobernuari bidali baino lehen. Lau urteko plana informatu eta onestea.

c) Garapenaren aldeko lankidetzak ukitzen duten lege aurreproiektuen gaineko txostenak aurrez egitea.

d) Lagun egitea epe epe jarraipena eta ebaluazioa egiten bai proiektuen betetzeari eta bai garapenaren aldeko laguntza ofizialaren osotarako betetze mailari buruz.

e) Jendea garapenari buruz sentikortu eta hezitzeke ekimenak proposatu eta bultzatzea.

f) Administrazio publikoen eta Nafarroako Foru Komunitatean garapenaren aldeko lankidetzan ari diren eragileen artean elkarlana egon dadin bultzatzea.

g) Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren departamentuentzako txostenak egitea, haiek eskatuta, jakin ahal izateko garapen bideko herrialdeekiko harremanetan eragina duten Nafarroako Gobernuaren beste politika batzuk bat datozen garapenerako nazioarteko lankidetzaren helburuekin.

h) Garapenaren aldeko lankidetzaren gaitan Nafarroako Gobernuak eskatu edo legeek agintzen dizkioten beste eginkizun guztiak.

IV. KAPITULUA

Garapenaren aldeko lankidetzaren ekintza arloak, baliabideak eta plangintza

13. artikulua. Ekintza arloak.

Nafarroako Administrazio Publikoak honako arloetan arituko dira:

a) Giza garapen integral, parte-hartzaile eta jasangarrirako programak eta proiektuak, alderdi guztietan: instituzionala, soziokulturala, ekonomiko- finantzarioa, zientifiko-teknikoa, hezkuntzazkoa eta ingurumenekoa; horietan gizarte zibilaren sendotzea bultzatuko da eta giza eskubideak errespetatuko.

b) Laguntza humanitarioko programak eta proiektuak, dela hondamendi naturalengatik dela giza-ekintzagatik larrialdian edo berehalako arriskuan dauden gizataldeei lagun egitekoak eta horiek berregokitzekoak.

Laguntza humanitarioak badu beste helburu bat, alegia, populazio zaugarrien bizitza babestea, gizaki orok baduela hautatzeko gaitasuna ematen dioten eskubideak eta duintasuna aitortuta. Laguntza humanitarioaren berezko helburu dira laguntza, babesa eta aurrea hartzea.

c) Nafarroako jendarteko iritzia eta oro har gizartea hezi eta sentikortzeko programa eta proiektuak, garapen bideko herrialdeen egoera ulertu eta haiekiko elkartasuna bultzatzekoak.

d) Pobretzearen benetako kausa eta konponbideak azaltzerakoan presentzia eta konpromiso aktiboa izatea, bai eta botere publikoei hegoaldeko herrialdeak pixkanaka gara daitezzen neurri eraginkorrakoak hartzeko eskariak egiterakoan ere.

e) Bidezko merkataritza deiturikoa sustatzeko ekintzak eta herrialde pobretuen kanpo zorra erabat deusezteak.

14. artikulua. Baliabideak.

Foru lege honetako aurreko artikuluan deskribatu diren modalitateak gauzatzeko, Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoek honako baliabideak izan ahalko dituzte, erregelamendu bidez garatu beharko direnak:

a) Garapenaren aldeko lankidetzaren ekintzak sustatzeko diru publikoa erabili ahal izatea.

b) Nafarroako administrazio publikoen ekimen propioa identifikazioaren eta gauzatzeko aukeren inguruko azterlanak egiteko, berak aurrera eramateko ekintza bihurtu ahalko direnak.

c) Erakundeen adierazpenak eta garapen orokor, iraunkor eta harmonikoa sustatzen duten herri ekimenei laguntzea.

d) Jarrera aktiboa hartzea pobretzea dakarten egoeren aurrean, erakundeen adierazpenak eginez eta giza garapen jasangarria sustatzen duten ekimenak lagunduz.

15. artikulua. Efizientzia.

Helburuak hobeki erdiesteko eta erabilitako baliabideei etekin gehiago ateratzeko, Nafarroako administrazio publikoek aukeran kofinantzazio araubidean eginen dituzte ekintzak; zilegi izanen dute administrazio bat baino gehiagoren aportazioekin funtsak osatzea eta garapenaren aldeko lankidetzan ari diren eragileen arteko informazio trukea bultzatuko dute.

16. artikulua. Kontrola eta ebaluazioa.

Foru Komunitateko administrazioak ezarriko ditu behar diren kontrol eta ebaluazio tresnak funts publikoak erabiltzean legeak begiratu eta eraginkortasuna zaindu dadin segurtatzeko, Kontuen Ganbarak legez bere dituen eskumenak ezertan galarazi gabe.

17. artikulua. Plangintza.

1.-Nafarroako Gobernuak urte anitzetako plan zuzentzaileak onetsiko ditu zehazteko, foru lege honek ezarritako arauen barnean, zer lehentasun eta helburu izanen dituzten garapenaren aldeko lankidetzaren ekintzek. Plan horiek Nafarroako Parlamentura igorriko dira eztabaidatu eta horiei buruzko irizpena emateko.

2.-Nafarroako Parlamentuak urtero ezagutuko du, ezartzen den moduan eta Gobernuaren proposamen eta ekimenez, garapenaren aldeko lankidetzaren politika. Horretarako, Nafarroako Gobernuak Biltzarrera igorriko du onets dadin hurrengo artikuluan aipatzen den urteko plana.

3.-Gobernuak Nafarroako Parlamentuko batzorde eskudunari informatuko dio plan zuzentzailean eta urteko planean jasotako programa, proiektu eta ekintzen exekuzio maila eta betetze graduari buruz. Halaber, batzordeak lankidetzaren ebaluazioari buruzkoen berri jasoko du, bai eta aurreko ekitaldiko urteko programaren kudeaketari buruzko oroit-idazkiak jasotzen dituen emaitzen berri ere.

18. artikulua. Urteroko ekintza programa.

Urtero, departamentu eskudunak programa bat prestatuko du lau urteko ekintza planak garatzeko, eta bai urteko programaren kudeaketari buruzko oroit-idazkia ere. Biak Nafarroako Gobernuak onetsi beharko ditu.

V. KAPITULUA

Lankidetzaren eragileak

19. artikulua. Lankidetzaren eragileak

Foru lege honen ondorioetarako lankidetz-eragileak izanen dira ondoko hauek:

-Nafarroako Foru Komunitateko administrazioa

-Nafarroako toki administrazioak

-Gobernuz kanpoko erakundeak, hau da, legez eraturako entitate pribatuak, irabazi asmorik gabeak eta bere helburuen artean edo berariazko xede gisa -beraien estatutuetan edo horren baliokide den dokumentuan hala ezarrita- garapenaren aldeko nazioarteko lankidetzako jarduera eremuarekin lotutako ekintzak -foru lege honen seigarren artikuluan aipatu direnak- gauzatzea badute.

-Entitate eta pertsona juridikoak, beraien berariazko helburuen azken xedea garapenaren aldeko lankidetz-eragileak izaki, nahiz eta irabazi asmorik izan dezakeen.

-Tokiko talde edo erkideak eta herrialde pobretuetako erakundeak.

20. artikulua. Nafarroan garapenaren aldeko lankidetz-eragileentzako baldintzak.

Lankidetz-eragileek, nortasun juridiko publikoko entitateek salbu, eta Nafarroan garapenerako lankidetz-eragileentzako jardun nahi duten entitate pribatuak honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Lege indardunen arabera nortasun juridikoa izatea.

b) Nafarroako Foru Komunitatean sozietatearen egoitza edo delegazio iraunkorra izatea, foru lege honen barrenean antolatzen diren ekintzei dagozkien erabaki eta kudeaketen gertaleku benetakoa izateko.

c) Irabazi asmorik gabekoak izatea. Irabazi asmoko enpresa, gremio edo antzeko erakunde pribatuen kasuan, baldintza horrek adierazten du erakundeak ez duela beretuko foru lege honen babesean egindako garapenaren aldeko lankidetz-eragileentzako jardun ondorioz izandako irabazi edo onura enpresariala. Nolanahi ere, ekintza horietan izandako dirusarrera guztiak erabat gardenki kontabilizatu beharko dira eta garapen ekintzetan berrinbertitu, edo laguntza humanitarioetan edo garapenaren aldeko hezkuntzan, kasuan kasuko administrazioaren oniritzi espresua dagoela.

d) Tokiko bazkide edo erkide bat izatea proiektuak burutu behar diren eremuan.

Foru lege honek agintzen dituenetarako, tokiko bazkide edo erkideentzako joko da programa edo proiektua materialki gauzatzen duen erakundea, laguntza hartzen duen herriko legeen arabera nortasun juridikoa duena. Nortasun juridikoarena baldintza izanen da baldin eta herrialde horretan erkidea legezztatzea uzten badute.

e) Bere programa eta proiektuetarako funtsak eskuratzeko, funts horiek eskuratzeko oinarrietan eskatzen diren betebeharrak bete beharko dituzte.

21. artikulua. Nafarroako garapenaren aldeko gobernuz kanpoko erakundearen erregistroa eta zentsua.

1.-Nafarroako garapenaren aldeko gobernuz kanpoko erakundeek izena eman beharko dute elkarte eta fundazioei buruzko legedian araututako administrazio erregistroetan, baldin eta diru publikoa jaso nahi badute.

2.-Garapenaren aldeko lankidetzaren arloan eskumena duen departamentuak zentsu batean bilduko ditu Nafarroako garapenaren aldeko gobernuz kanpoko erakunde guztiak. Zentsu hori erregelamendu bidez arautuko da.

22. artikulua. Garapenaren aldeko gobernuz kanpoko erakundeen eta haienezako aportazioen araubide fiskala.

1.-Fundazioen tributu araubidea, uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legean arautzen dena, aplikatuko zaie, Sozietateen gaineko Zergari eta Toki Tributuei dagokienez, foru lege honetako 21. artikuluan aipatzen den erregistroan inskribaturik dauden garapenaren aldeko gobernuz kanpoko erakundeei.

2.-Apirilaren 26ko 129/1999 Foru Dekretu Legegileko 35 I.A).c) artikuluan ezartzen den salbuespen subjektiboa (dekretu horrek Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren xedepenen Testu Bateratua onetsi zuen) aplikatuko zaie bertan aipatzen diren entitateei baldin eta garapenaren aldeko lankidetzaren barrenean dekretu horrek aipatzen dituen jardueretan aritzen badira.

3.-Foru lege honetako 6. artikulua ezartzen dituen ekintza arloetako jarduerak laguntza sozialtzat hartzen dira Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legeko 17.1.17 artikuluan ezartzen den salbuespena izateari begira.

4.-Pertsona fisiko nahiz juridikoek 10/1996 Foru Legean ezarri den tributu araubide berezia erdietsi duten garapenaren aldeko gobernuz kanpoko erakundeei egiten dizkieten aportazioek eskubidea emanen dute foru lege horretako II. tituluko I eta II. kapituluetan aipatzen diren pizgarriak izateko.

5.-Foru lege honetako 21. artikulua aipatzen duen erregistroan inskribatu gabeko garapenaren aldeko gobernuz kanpoko erakundeen tributu araubidea, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko XII. kapituluaren finkatzen dena izanen da.

VI. KAPITULUA

Garapenaren aldeko lankidetzaren langileak

23. artikulua. Xedapen orokorrak.

Garapenaren aldeko lankidetzaren programetako helburuak eta kudeaketa betetzeko, zilegi izanen da administrazio publikoen zerbitzuko edo Nafarroako garapenaren aldeko lankidetzan aritzen direnetako edozein erakundetako langileak erabiltzea.

24. artikulua. Administrazio publikoetako langileak.

1.-Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileek zilegi izanen dute garapenaren aldeko lankidetzaren ekintzetan parte hartzea, bai administrazio horien beren programetan eta bai beste entitate batenetan.

2.-Langile horiei aldi baterako zerbitzu-eginkizunak aitortuko zaizkie baldin eta beren administrazio publikoaren proiektu zein programetan parte hartzen ari badira, eta ondorio guztietarako jarduneko zerbitzuan jarraituko dute, non eta horrek ez dakarren haren lanpostuan ordezkatu beharra.

3.-Langile horien parte hartzeak sortzen dituen kostuak, kasuko administrazioak nazioarteko garapenaren aldeko lankidetzarako dituen aurrekontu kontusailetatik ordainduko dira.

4.-Administrazio publiko baten programa eta proiektu propioen exekuzioen kasuan, administrazio horrek zilegi izanen du langileak kasurako komeni diren aseguru osagarriez hornitzea programa eta proiektu horien aurrekontutik pagaturik.

5.-Langile horiek zerbitzu berezietara pasako dira baldin eta beste entitate baten lankidetzaren programetan - diru publikoarekin finantzaturako programetan- boluntario edo kooperante gisa parte hartzen badute eta parte-hartze hori urteko hilabete baino gehiagokoa bada, nahiz eta lanpostuan ordezkatu beharrik ez izan. Aplikatzekoa den araudiari jarraikiz, administrazio egoera horretarako ezarritako ondorioak izanen ditu, eta parte-hartzea boluntarioa bada eta urteko hilabete edo gutxiagokoa bada eta lanpostuan ordezkatu beharra ez badakar, aldi baterako zerbitzu-eginkizunak aitortuko zaizkio langileari.

25. artikulua. Beste entitate batzuen zerbitzuko langile kontratatuak: kooperanteak.

Kooperanteen eskubide-betebeharrak, eta haien bateraezintasunen araubidea, prestakuntza, ematen dituzten zerbitzuen homologazioa, aurreikuspen sozialeko modalitateak eta haien araubide juridikoko beste alderdiak, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzari buruzko uztailaren 7ko 23/1998 Legeko 38.2 artikulua aipatzen duen estatutuan finkatzen direnak izanen dira.

26. artikulua. Beste entitate batzuen zerbitzuko langile boluntarioak.

Garapenaren aldeko langile boluntarioak dira beren burua libreki behartzen duten pertsona fisikoak interes orokorreko jarduerak modu altruista eta solidarioan egitera, nortasun juridikoa duten eta garapenaren aldeko programa konkretuak kudeatzen edo burutzen parte hartzen duten irabazi asmorik gabeko erakundeetan integraturik. Zilegi izanen da aldi berean langile boluntario eta erakunde bereko kide izatea.

27. artikulua. Erbesteko langile boluntarioak.

Nafarroako garapenaren aldeko gobernuz kanpoko erakundeak, bertan integraturik dauden eta erbestean ari diren langile boluntarioei dagokienez, beharturik daude honako eskubideak begiratzera (eskubide horiek langileak eta erakundea lotzen dituen hitzarmen edo itun formalaren gutxieneko edukia izanen dira):

a) Helburuko herrialdean mantendu eta ostatzeko premiei eta joan-etorrien gastuei aurre egiteko behar diren baliabideak eta esleitu zaien jarduera betetzeko gauza baliabideak izatea.

b) Pertsona horien eta beraiekin joaten diren ahaide zuzenen aldeko asistentzi aseguru bat, erbestealdi osoan gutxienez eritasun eta istripu arriskuak hartzen dituen, eta bai etxeratze gastuak eta hirugarrenei egindako nahiz hirugarrenengandik hartutako kalteen erantzukizun zibila ere.

c) Langile boluntarioa dela frogatzeko moduko kreditazioa izatea.

d) Prestakuntza aldi bat, halakorik behar bada.

28. artikulua. Langile boluntario guztientzako xedapenak.

Lankidetzaren erakundeak adierazi behar die bere menpeko langile boluntarioei zein diren bere ekintzaren helburuak, ekintza hori zein eremutan gertatzen den, ze eskubide- betebeharrak dituzten, eta helburuko herriaren legeak begiratu behar direla.

Aurreko kapituluetan aurreikusi gabeko guztirako, Boluntario lanari buruzko martxoaren 27ko 2/1998 Foru Legeak agintzen duena aplikatuko zaie lankidetzako langile boluntarioei.

VII. KAPITULUA

Arau-haustea eta zehapenak

29. artikulua. Garapenaren aldeko gobernuz kanpoko lankidetzaren gaitako arau-haustea.

1.-Garapenaren aldeko gobernuz kanpoko lankidetzaren gaitako arau-hauste dira foru lege honetan eta berau garatzeko arauetan agintzen denari kontra egiten dioten egite edo ez-egite guztiak eta bai Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoetako dirulaguntzak eman eta kontrolatzeko araubide orokorra arautzen duen ekainaren 9ko 8/1997 Foru Legeari kontra egiten diotenak.

2.-Arau-haustea arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke, nolako izaera, garrantzia eta eragina izan duten.

30. artikulua. Arau-hauste arinak.

Hauek dira arau-hauste arinak:

a) Erbesteko langile boluntarioei ez ematea langile boluntario direla frogatzeko moduko kreditaziorik.

b) Ez ematea erbesteko langile boluntarioei behar duten prestakuntza.

c) Erbesteko langile boluntarioei ez ematea bere gain duten lankidetzaren eginkizuna burutzeko behar dituzten gauza baliabideak.

d) Ez sinatzea foru lege honetako 27. artikulua aipatzen duen hitzarmen edo itun formala, artikulua hartantxe ezartzen den gutxieneko edukiarekin.

e) Foru lege honek edo berau garatzeko xedapenek agintzen dutena urratu eta arau-hauste larri edo oso larri ez diren egite edo ez-egite guztiak.

31. artikulua. Arau-hauste larriak.

Hauek dira arau-hauste larriak:

a) Ez ematea erbesteko langile boluntarioei helburuko herrian mantendu eta ostatzeko gastuei eta joan-etorrien gastuei aurre egiteko behar dituzten baliabideak.

b) Ez aseguratzea erbesteko langile boluntarioak foru lege honetako 27. artikuluko b) idatz-zatiak ezartzen duen moduan.

c) Administrazioari kontrol eta ebaluazio lana galarazi edo trabatzea.

d) Izaera bereko hiru edo gehiago arau-hauste metatzea.

32. artikulua. Arau-hauste oso larriak.

Hauek dira arau-hauste oso larriak:

a) Izaera bereko hiru edo gehiago arau-hauste metatzea.

b) Erbesteko langile boluntario edo kontratatuen osotasun fisikoarentzat edo osasunarentzat arrisku edo kalte handia sortzen duten egite edo ez-egite guztiak.

33. artikulua. Zehapenak.

1.-Nazioarteko garapenaren aldeko lankidetzeta gaietako arau-hausteak honako faktoreen arabera zehatuko dira:

1.1. Arau-hauste oso larriek 1.000.001 pezetatik 10.000.000 pezetara bitarteko isuna izanen dute. Zehapenerako eskumena duen agintariak zilegi izanen du erabakitzea, horrez gain, hiru urtetik bostera bitartean foru lege honetako 6. artikuluari dagozkion jarduerak finantzatzeko dirulaguntzak eskuratzeko eskubidea galtzearen zehapena ezartzea.

1.2. Arau-hauste larriek 100.001 pezetatik 1.000.000 pezetara bitarteko isuna izanen dute. Zehapenerako eskumena duen agintariak zilegi izanen du erabakitzea, horrez gain, urte batetik hiru urtera bitartean foru lege honetako 6. artikuluari dagozkion jarduerak finantzatzeko dirulaguntzak eskuratzeko eskubidea galtzearen zehapena ezartzea.

1.3. Arau-hauste arinek 50.000tik 100.000 pezetara bitarteko isuna izanen dute, eta gainera ohartarazpena.

2.-Zehapenak graduatzeko aintzat hartu behar diren inguruabarrak hauek dira:

a) Pertsonentzat sortzen duen arrisku edo kaltea.

b) Arau-hauslearen asmoa.

c) Egindako alterazioak larriak diren.

d) Administrazioak egindako ohartarazpenak eta errekerimenduak ez betetzea.

d) Urtebetean izaera bereko arau-hauste bat baino gehiago egin den, administrazio bideko ebazpen irmo batek hala deklaratu duenean.

34. artikulua. Preskripzioa.

Arau-hauste oso larriek hiru urteren buruan preskribituko dute; larriek bi urteren buruan eta arinek sei hilabeteren buruan, arau-haustea egin den egunetik kontatuta.

Arau-hauste oso larrien zehapenek hiru urteren buruan preskribituko dute; arau-hauste larriek bi urteren buruan eta arinenek urte baten buruan, zehapena ezartzen duen ebazpena irmotu eta biharamunetik kontatuta.

35. artikulua. Zehatzeko eskumena duten organoak.

Unean-unean nazioarteko garapenaren aldeko lankidetzaren gaietako eskumenak dituzten organoak dira zehapen prozedura hasteko eskumena dutenak.

Arau-hauste larri eta arinen zehapen prozedura ebazteko eskumena, unean-unean nazioarteko garapenaren aldeko lankidetzaren gaietako eskumenak dituen departamentuaren titularrak izanen du.

Arau-hauste oso larrien kasuan, Nafarroako Gobernuari dagokio ebaztea.

36. artikulua. Zehapen prozedura.

Zehapen prozedura abuztuaren 11ko 1398/1993 Errege Dekretuz onetsitako zehapen eskumena erabiltzeko prozeduraren Erregelamenduak finkatzen duena izanen da.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenbizikoa.-Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bateratuaren 24. artikuluko 1. idatz-zatiko i) letrako testua aldatu eta honela uzten da:

"i) Baimena ematen zaienean eginkizun bat aurrera ateratzeko nazioarteko erakundeetan, erbesteko erakunde publikoetan edo legez aitortutako garapenaren aldeko gobernuz kanpoko erakunde irabazi asmorik gabeko batean, kasuko administrazioak kofinantzatzen duen programa edo proiektu batean."

Bigarrena.-Aldatu egin da Nafarroako Foru Komunitatearen eta haren menpeko erakunde autonomoetako dirulaguntzak eman eta kontrolatzeko araubide orokorra arautzen duen ekainaren 9ko 8/1997 Foru Legeko 18. artikulua. 3. idatz-zatia gehitu zaio, hauxe dioena:

"3.Garapenaren aldeko lankidetzaren proiektuentzako dirulaguntzak emanez gero, nahitaez ezarriko dira bermeak baldin eta aurrerakina hogeit hamar milioi pezetatik gorakoa bada."

Hirugarrena.-17. artikuluan aipatutako planetariko lehena foru lege honek indarra hartu eta gehienez ere urtebeteko epean prestatuko du Nafarroako Gobernuak.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenbizikoa.-Baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari foru lege hau garatu eta betearazteko behar diren xedapen guztiak emateko.

Bigarrena.-Baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari, Nafarroako Garapenaren aldeko Kontseiluari entzun ondoren, epez epe berritzeko foru lege honetako 32. artikuluan aurreikusten diren isunen zenbatekoak.

Hirugarrena.-Foru lege honek agintzen duenari kontra egiten dioten xedapen maila bereko edo apalagoko guztiak indargabetzen dira. Laugarrena. Foru lege honek Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunean indar hartuko du.